

bidaia margotzuak  
painted trips

the balde

0€



abuztua | iraila  
agust | september

83

# POLLYWOOD



# 83



## the balde

antsoain 1  
31014 iruñea  
t. +34 948 12 19 76  
f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea  
20115 astigarraga  
t. +34 943 44 44 22  
f. +34 943 33 60 66

[www.thebalde.net](http://www.thebalde.net)  
[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)

[publi@thebalde.net](mailto:publi@thebalde.net)  
m. +34 686 485 980

**harpidetzak / suscriptions:** haizea bakedano perez  
**argitaratzailea / publisher:** eragin.com - azpikari sl  
**editore / editor:** iñigo martinez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**zuzendari komertziala & publizitatea / comercial director & publicity:**

iñigo martinez  
[publi@thebalde.net](mailto:publi@thebalde.net)  
+34 686 485 980

**diseinua / design:** martin etxauri, ekaitz auzmendi, eneko etxeandia

**itzulpenak / translations:** 11itzulpen, smiley

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** arkaitz villar, aritz galarraga,

federico babina, david zapirain, judas arrieta, uxeta labrit, agurtzane ortiz

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** anurson charoensuk,

uxeta labrit, rebecca szeto, oskar alegría, matthias schaller, the balde crew

**azaleko irudia / cover image:** anurson charoensuk

**aurkibidea / summary:** otomotake estudio

**harpidetza orria / subscription page:** otomotake estudio

**inprimategia / printed at:** gráficas alzate

**lege gordailua / legal:** na-3244/01

**the baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:**


 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

The background of the entire page is a repeating pattern of orange slices. Each slice is shown from a top-down perspective, revealing the internal segments and the central core. The slices are arranged in a staggered, grid-like fashion across the white background.

Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

*Imaginative, provocative and interesting works? send them to:*

**info@thebalde.net**

gtv images

GTA V bideojoko ezagunera jolasten duen bitartean, begi aurrean duen pantailan azaltzen diren egoerei eta paisaiei argazkiak ateratzen dizkie Morten Rockford Ravn-ek. Argazkiek, ezinegona sortzeaz gain, errealitatearen eta fikzio digitalaren arteko hausnarketa pizten dute.

gtv images

Morten Rockford Ravn takes photos of the situations and scenery he sees on the screen while he plays GTA V. His photos make you uneasy and also invite you to reflect on the relationship between digital fiction and reality.

[fearandloathingintav.tumblr.com](http://fearandloathingintav.tumblr.com)



SEPTEMBER  
MUSTS

expogrow 2015

Aurtengo edizioiko programa itxi da honez gero. Eta, urtero lez, jaialdiak irauten duen hiru egunetan, ez da aspertzeko minutu bakarra ere izango. Kalamuaren inguruko azoka eta jardunaldiez gainera, hainbat kultur eta kirol egitasmo izango dira gune ezberdinetan, eta, nola ez, musika emanaldiak. Besteak beste aurten Jamaikatik heldu zaizkigu Third World Reggaearen enbaxadoreak, eta Collectif 13, Flavia Coelho, Accion Sanchez & zatu, Marina P & Stepart, LMK, Don Camilo...

expogrow 2015

This year's programme is complete. And, like every year, there won't be any chance of getting bored during the three days it lasts. As well as the cannabis fair and activities, there are going to be many different sports and cultural activities in different pA, Jamaica's Third World reggae ambassadors, Collectif 13, Flavia Coelho, Accion Sanchez & zatu, Marina P & Stepart, LMK and Don Camilo are playing this year.

[expogrow.net](http://expogrow.net)



getxophoto

Gure urteroko kultur ekitaldi kuttunetakoak bidaiaren kontzeptua aukeratu du aurtengo edizioan. Hori irudikatzeko, mundu zabaleko argazkilariek proposaturiko hainbat lan aukeratu eta kaleratuko dituzte. Luxua da aurten ere "ikusia makusi" esan, eta kalera aterata "zer ikusia" izatea. Iraila osoan zehar.

getxophoto

Our favourite annual cultural event has chosen travel as its theme for this year. To put it into pictures, they're chosen work by photographers from all over the world and taken them out onto the street. This year, too, we have the luxury of being able to say "I spy..." and having things to see out there. Throughout September.

[getxophoto.com](http://getxophoto.com)



# euskaratik ingelesera, ingelesetik euskarara

# ZUZEN

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala

GAZTELANIA | EUSKARA  
INGELES | FRANTSESA | ALEMANA

**11itzulpen**

[www.11itzulpen.eus](http://www.11itzulpen.eus)

gozatu   
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.



[www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)



# ARTABURUZ



## zinemaldia

Iraila lanera itzultzeko hilabete astun hori da jende askorentzat. Beste batzuentzat, turismo uholdeek hartutako kaleak berreskuratzeko tarte. Guretzat, zinema aretoetako pantailetan denboraren eta espazioaren zentzua galtzeko garaia da. Donostia mundu osoko zinemaren epizentro bihurtuko da egun batzuetan, eta gutariko asko saiaturako gara zinemaren richter taulan ahalik eta goien izaten.

## zinemaldia

For many people, September's the dull month they go back to work. For others, it's when they get the streets back from the waves of tourists. For us, it's when we pass out in front of the big screen. For a few days Donostia becomes the epicentre of world cinema and some of us will try to get as high as possible on the Richter Scale.

[sanebastianfestival.com](http://sanebastianfestival.com)



## soka askatuz

Janiana Mello eta Daniel Landini artisten elkarlanaren emaitzak Cliclotrama du izena. Eta hain da sinplea beren poposamena, ezin dugula ezer ederragorik irudikatu soka batekin. Bueno bai, baina ez dugu hemen aitortuko. Mello eta Landinik, soka bat hartu, eta, hura osatzen duten zuntzak askatuz, naturara itzuliarazten dute, eta zuhaitz bihurtu. Liluragarria.

## freeing the knot

Artists Janiana Mello and Daniel Landini's project is called Cliclotrama. And their idea is so simple that we can't imagine anything more beautiful could be made with a rope. Well, we can, but let's not go into that here. Mello and Landini chose a rope, freed the fibres it was made of, took them back to nature and made them into a tree. Astonishing.

[mellolandini.com](http://mellolandini.com)



## basquiat + koons

Joder! Onartu behar dugu ez dugula oso atsegin Guggenheim-ek antolatzen duen ezerean aipamena egitea. Ez digute sekula publizitaterik sartu, kultura aurrekontuaren zati handi bat eramaten dute, eta oso molde elitista nazkantea daramate beren jarduera askotan. Baina oraintxe, bisita berean, Jeff Koons eta Jean Michel Basquiat-en erakusketa bana ikusteko aukera duzuela esan behar genuen... Bai, horrelakoa da bizitza; tarteka galtzak jaitsi behar izaten ditugu.

## basquiat + koons

Damn! We have to admit that we don't really like mentioning anything organised by the Guggenheim. They've never advertised with us, they swallow up a large part of the public budget for culture and are all too often extremely elitist in the way they do things. But we just had to tell you that you'll be able to see an exhibition by Jeff Koons and another by Jean Michel Basquiat at the same time... Sometimes we just have to bend over and take the punishment.

# 2015

Iraila  
**September**

Argazki Jaialdia  
**Photography  
Festival**

## BIDAIAK **TRIPS**

Komisarioa / **Curator**  
**CHRISTIAN  
CAUJOLLE**

Antolatzailea / **Organizer**

**BEGIHANDI**

Elkarrekin / **Sponsors**



**INSTITUT  
FRANÇAIS**



**bbk**

GETXO  
PHOTO



Alejandro Calzagala, Carponera

[www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)



#### passolini

Aritz Galarragak erakusketa honen berri eman zigun 2013ko The balde 71. zenbakian. Orain ez dugu bidaiatu beharrik, ez atzerrira behintzat, San Telmo museoa jarri dutelako. Erakusketa bisitatu, eta, bide batez, haren idatziak irakurtzeko aukera paregabea dugu argitalpen berriei esker. Passolini, Roma, vita e morte.

#### passolini

Aritz Galarraga told us about this exhibition in number 71 of the balde back in 2013. There's no need for us to travel now, at least not abroad, because they've brought it to San Telmo Museum. It's a chance to see the exhibition and, thanks to new publications, a great opportunity to read his writing. Passolini, Roma, vita e morte.

## PAPER ETA ZINEMA GORPUTZAK

GIILLOTINA

#### guillotina

Guillotina kolektiboak autoedizioaren eta fanzineen inguruko makina bat egitasmo jarri du martxan azken aldian. Guillotina azokari esker, sortzaile eta fanzine ugari zaleekin biltzeko gune bat izaten dute. Tabakalerarekin elkarlanean gainera, Atlas izeneko egitasmoa ere sortu dute. Gu beti izan gara guillotina zaleak...

#### guillotina

Recently Guillotina Collective has started a load of self-edition and fanzine projects. Guillotina Fair offers many fanzine creators and fans a meeting place. In collaboration with Tabakalera, they've also started up a project called Atlas. We've always been fans of the guillotine...



#### specola anatomia bilduma

Jean Michel Basquiat-en erakusketa ikusi genuela aipatu dugu arestian. Han deskubritu genuen artista estatubatuarrek anatomiarekin zuen obsesioa, haurtzaroan izandako auto istripu baten ondorioz. Eta gu, bat batean, Florentziako Specola anatomia museoa dauden argizarizko gorputzekin gogoratu gara. Florentziak gordetzen dituen altxor ezezagun horietako bat da. Guk esan dizugu; orain, zure esku dago...

#### specola anatomy collection

We've already said that we've seen Jean Michel Basquiat's exhibition. We found out there that the US artist's obsession with the anatomy goes back to a car accident he had as a child. And, all of a sudden, we remembered the bodies made of photos in Florence's Specola Anatomy Museum. It's one of Florence's least-known treasures. We've told you: now it's up to you...

### eskalatzaile flipatuentzat

Suizako Luzzone lakuko urari eusten dion paretak, bere 165 metroko altueran, 650 goratik presa artifizial ditu jarriak. Holandako Groningen hirian dagoen 37 metroko Excalibur dorrea ere ez da erronka txikia. Zuen furgoneta moloi horietan egiten dituzuen txango horietako batean paret horietatik gertu pasatzen bazarete, animatu.

### for sick climbers

The 165-metre tall wall which holds the water back at Luzzone Lake, in Switzerland, keeps back more than 650 artificial reservoirs. The 37-metre tall Excalibur Tower at Groningen, in the Low Countries, is quite something too. If you go anywhere near them in your cool camper vans, have a go at them.



UP

CUT



### zu zeuk egin

Egun, sareari esker, gero eta autonomoagoak gara. Sarean, informazioa bilatzeaz gain, erosketak egin, ligoteoa edo eta gaixotasunen diagnosis eta sendabidea bilatzen dugu. Ez da harrizkoa, beraz, etxeko txikiari fimosia egitera animatzen den gurasorik egotea. Haientzat sortu da *Circuncision kit* delakoa. Bi bertsio: haurrentzat eta helduentzat. Unea iristen denerako ongi trebatuta egon zaitezen. Barbra Streisand-ek esango lukeen moduan, "kosher y cantar".

### circumcision kit

Nowadays, thanks to the Net, we're increasingly autonomous. We use the Internet for getting information and, as well, for buying things, getting off, finding diagnoses for our illnesses and getting healthier. So it's no surprise that there are parents who encourage their sons to circumcise themselves. That's what the Circumcision Kit has been made for. Two versions: for children and for adults. Let's hope they're skilful when they get down to it. As Barbra Streisand might put it, it's kosher...

# Eskuratu Entzun! liburu berria... ...eta eraman doan 19 kantuko CD-bilduma!



## Entzun! bilduma 2014

TUTAN COME ON *Euskal Herriak rokeatzen du* •  
 BAKELITE *Indarra* • ESKEAN KRISTÖ *Latigo!* •  
 VOLTAIA *Erregerik Ez* • LA HORA DEL PRIMATE  
*Primatea naiz eta harro nago* • JOSEBA IRAZOKI &  
 LAGUNAK *Baso ertzean* • PERLAK *Ahaztu hasteko*  
 • BORROKAN *Noiz da gero* • FLY SHIT *Iratzarri*  
 • EZINEAN *Ke todos...* • EN TOL SARMIENTO  
 (ETS) *Zure Mundua* • TANIA DE SOUSA *Hiltzen*  
*ari naiz* • MORAU TA BENARDO *Agur esan nahi*  
*ez* • NEREA ERBITI & THE SUSTRAIANS *Izango*  
 • GOSARIAK *Errua* • LIBE *Ihesaldi handia* •  
 HOGEITABIMETROKOADRO (22m²) *Gelditzeko*  
 • KASHBÂD *Lokatx Siderala* • BERRI TXARRAK  
*Helduleku guztiak*

Harpidetu eta gainera gabe etxean jaso.  
 Idatziguzu [entzun@entzun.com](mailto:entzun@entzun.com)-era



Eta gainera:

## Entzun 2008-2013 Kutxa!

- 5 liburu + 5 CD
- 740 orri musikaz gainezka
- Euskal Herriko 85 talderen 90 kanta!!!
- 150 aleko tirada mugatua

1996tik Euskal Herriko musikarekin

[entzun.com](http://entzun.com) / [@entzuner](https://twitter.com/entzuner)



**Karlos Linazasoro**  
**Literatura hiztegi tekniko laburra**

Idazlan jantzi eta akademikoa, literatura genero nagusien berri xehea ematen duena, ordena alfabetikoan.

ebook-ean ere bali

**elkar**  
**BIZI LITERATURA**  
[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

Anurson Charoensuk argazkilaria tailandiarra 1985ean jato zen, eta, milurteko berria sartu zen arte, ez zuen argazki kamararik izan eskuartean. Orduz geroztik, ordea, bere bidaiak guztien argazkiak ateratzen dihardu. Bidaiak horiek ez dira nolana hikoak, ordea. Jatorri apalekoa izanik, artista honek ez du baliabiderik fisikoki bidaiatzeko; arrazoi horrexegatik, etxeko garagearen horman margotzen ditu bisitatu nahi dituen destinuak, eta hantxe ateratzen ditu bidaiak bertuteko argazkiak.

Bakarrik, batzuetan, familiak lagunduta bestetan, edozein turistak egingo lukeen moduan posatzen du garageko horman margoturiko destinuaren aurreran.

Bere aita hiri zanean, argazkietan hura, aingeru guardakoaren moduan irudikatzen hasi zen.

GETXOPHOTO argazki jaialdiak bidaiak kontzeptuari eskaini dio aurtengo edizioa. Han ikusi ahal izango da mundua ordezkatzeko duten irudi kodifikatuz osatutako argazki sail eder hau.

Thai photographer Anurson Charoensuk was born in 1985 and it wasn't until the beginning of the new millennium that he got his hands on his first camera. Ever since then he has photographed every element of all of his travels. They are not; however, what you would call typical journeys. He comes from a very humble background and, as such, cannot afford to physically travel. So, he paints pictures of the places he would like to visit on his garage wall and takes photographs of his virtual travels there. Sometimes alone, sometimes with family, he poses just as any other tourist would in front of the locations he paints on his garage walls.

When his father died, he started to paint him in the photos as a little guard angel. This year's edition of the GETXOPHOTO photography festival is dedicated to the concept of travel. You can see Anurson's beautiful photos in this selection of codified images that show us the world at large.





## pachuco boogie

Pachuco boogie-ak, musika mexikar-amerikarra eta afroamerikar eta afro-karibear doinuak nahasten ditu, beti ere dantza helburu gisa izanik. 30. hamarkadaren amaieran, AEB-tan bizi ziren gazte mexikar-amerikarrek mugaren bi alboetan baztertuak sentitzen ziren. Beren eremu kontrakultural propioa sortu zuten. Eta garaiko gizarte borroka hura, musika, dantza eta modaren bitartez bideratu zuten. Swing orkestra eta traje elegante zabalaren zale, Pachuco eta pachucas taldeek dantzaguneak bere egin zituzten.

40. hamarkadaren amaieran Don Tosti musikaria Los Angelesera joan zen bizitzera eta swing eta jazz orkestretan trebatu zen. Berehala hasi zen ordea swing, boogie edo eta blues musika amerikar hartan, berak hain gustukoak zituen doinu mexikar eta afro-karibearrak gehitzen. Gainera AEBtako pachucoen hizkeraz kantatzen hasi zen. Konposaketa ugari egin zuen baina Pachuco Boogie izeneko kantuak eman zion arrakasta eta bide batez izena mugimendua musikal berriari ( milioi bat disko saldu zuen lehendabiziko kantu latinoan izan zen).

Musika pachucoaren bigarren zutabea Lalo Guerrero izan zen. Arizonan jaiotako gitarra joleak Ekialdeko kostaldera joan zen. Swing musikari, jump blues eta espainiar rumba eraginak gehitu zizkion. *Marihuana Boogie* da bere kanturik ezagunena, eta jazz, doo-woop eta rockaren arteko zubia eraiki zuela esan genezake. Pachucoek, rock-aren jarrera eta estetika ere barneratzen joan zirelako 60. hamarkadatik aurrera. Lalo Guerrerok, Don Tosti-ren moduan, makina bat kantu grabatu zuen. Bi musikari hauek, musika chicano dantzagarriaren oinarriak ezarri zituzten, eta beren arteko lehiak, urteetan elikatu ditu pachuco musika zaleen eztabaida sutuak. Beren jaioterrian eta beren gurasoen herrialdean arrotz sentitzen zen gazteriarri kantatzen zion musika dantzagarriak gainera, hitzetan, gizartearen erradiografia zehatz eta zorrotza egiten zuen. Askorentzat, espainiarrez kantatutako lehendabiziko rapak dira pachuco boogie doinuak.



Pachuco boogie brings together Mexican and American music, Afro American and Afro Caribbean sounds; the idea's always to get dancing. At the end of the 30's, young Mexicans living in the USA felt marginalised on both sides of the frontier. They created their own counter-cultural model. And they used music, dance and fashion to put together their contemporary social struggle. Fans of swing orchestras and wide, elegant suits, Pachuco and Pachuca groups made the dance halls their own.

At the end of the 40's musician Don Tosti moved to Los Angeles and played in swing and jazz orchestras. And soon afterwards swing, boogie and blues started to be added to the Mexican and Afro Caribbean sounds he loved so much. What's more, they started singing in the US Pachuco way of speaking. He wrote many pieces, but Pachuco Boogie is the song that brought him success and, at the same time, gave the new musical movement its name (it was the first Latin record to sell a million copies).



Lalo Guerrero was the second kingpin in Pachuco music. Born in Arizona, this guitar player moved to the east coast. He added the influence of swing, jump blues and Spanish rumba. *Marijuana Boogie* is his best-known song, and you could say that he built a bridge between jazz, do-wop and rock. Pachuco also started to take on rock attitudes and aesthetics from the '60's onwards. Lalo Guerrero, like Don Tosti, recorded a load of songs. Both two musicians laid the foundations for danceable Chicano music, and rivalry between the two has fed Pachuco fans' conversations for years. As well as being danceable, this music for young people who felt left out in the land where they had been born and also in their parents' country is an exact, sharp x-ray of society. Many people say that rap was sung in Spanish for the first time to Pachuco Boogie sounds.



## zoot jantzi istiluak

30 eta 40. hamarkadetako Los Angeleseko langile klaseko mexikar, beltz eta judutarrek modu berezian hasi ziren jantzen. Mutilek, jostunek propio eginiko traje hauek sorbalda zabaleko jakak, gerri inguru estua eta txorkatiletan lotzen ziren galtza bonbatxo modukoez osatuak zeuden. Osagarri gisa, hegala zabaleko sonbreirua, erloju kate luzea poltsikoaren kanpo aldetik eta labana poltsikoaren barrualdean. Ilea gominaz bustita. Neskek, jaka zabalak, sare pantiak, galtzerdi luzeak, gona motzak eta pompadour estiloko orrazkera eramaten zuten.

1942. urtean, guda mundiala zela eta, gobernua oihala aurrezteko kanpaina hasi zuen. Pachucoek, aginteari aurre egiteko, ahalik eta oihal gehien erabiltzen hasi ziren zoot izeneko beren trajeetan. Eta arrazoi sinple bezain eraginkor honi esker, garaiko politikoa eta komunikabideek pachucoen aurkako kanpaina bortitz eta arrazista hasi zuten. Pachukoak Los Angelesen gertatzen zen desgrazia ororen errudun bihurtu ziren. Iskanbila handiko garai hartan, ez mexikar ez amerikar sentitzen zen gazteria hura jomuga erraza izan zen gizarte xenofobo eta patriotiko harentzat. Kaleetan jaurtitako gasolinak 1943. urteko ekainaren 3an eztanda egin zuen. Gau hartan lehertu zen Zoo Suit Riot izenez ezaguna den razzia.

Los Angeleseko gune militarreko marineak pachuco ehizan atera ziren gau hartan. Zoo trajez jantzita ikusi zuten oro jipoitzen ahasi ziren. Istiluek luze iraun zuten (batzuk diotenez gaur eguneraino). Udaletxeak, polizia eta komunikabideek ordea, errua pachucoei bota zieten. Los Angeleseko pachuco zaharrek diotenez egun hartan Los Angeles betirako aldatu zen. Aberririk eta nortasunik ez zuen gazteria batek, mapetan azaltzen ez den herri baten parte sentitzen hasi ziren. Pachucoak, chicanoak, latinoak, la raza... izen ezberdinez ezaguna de nazio bat jaio zen egun hartan...

## zoot suit riots

In the 30's and 40's working class Mexicans, blacks and Jews dressed in a special way in Los Angeles. Boys wore tailor-made suits with wide-shouldered jackets, tight waists and baggy trousers which were tied at the ankle. Their accessories were wide-rimmed hats, watch chains worn on the outside and penknives in their pockets. Hair dripping with gel. Girls wore wide jackets, suspenders, long socks, short shirts and Pompadour hair styles.

In 1942, during the Second World War, the government started a campaign to save cloth. But the Pachucos, to go against the authorities, starting using as much cloth as possible to make their zoot suits. And, for that simple but effective reason, the politicians and media of the day started a violently racist campaign against the Pachucos. They became the people behind anything which went wrong in Los Angeles. At that time of great disturbances, those young people who felt neither Mexican nor American were an easy target for that xenophobe, patriotic society. It all went up in flames on 3rd June, 1943. What happened that night was known as the Zoot Suit Riot.

Marines left the barracks in Los Angeles to go and hunt the Pachucos down. They started beating up anybody they saw in a zoot suit. The disturbances lasted a long time (some people would say they're still going on). But the city councils, police and media blamed the Pachucos. Nowadays old Pachucos in Los Angeles say the city changed for ever that day. Young people without wealth or identity started to feel part of a country which wasn't on any map. Pachucos, Chicanos, Latins, La Raza... A nation known by many names was born that day.

## ¿que pues nuez?

*Pachuco* izena El Paso, Texasen sortu zen. El paso mexikarrentzat *Chuco* edo *Chuco town* zen... Etorikinei nora zihoazen galdetzen zietenean hauek Pa' eta horrela, etorkinak "pachuco" bihurtu ziren..

Pachukoek hizkera berezia garatu zuten. Jatorri ezberdineko iturrietatik edan zuten. Mexikotik, espainiera eta nahuatl hizkuntzak, AEBtako ingelesa eta harrigarria dirudien arren Espainiako ijitoen caló hizkuntzaren eragin handia izan zuen pachucoen hizkerak. Hainbeste zeinak beren hizkerari caló esaten zioten pachucoek. 1940. urterako oso zabaldua zegoen eta mexikar jatorriko langile klase guztiak hitz egiten zuen caló.

Hitz berriak asmatzeko trebetasun handiko gazteria izanik, etengabe garatzen eta aldatzen zen eta den hizkera da. Hona hemen hiztegi labur bat.

The word *Pachuco* was coined at El Paso, Texas. For Mexicans, El Paso was *Chuco* or *Chuco Town*. When immigrants were asked where they were going, they would answer "Pa(r) Chuco", which became "Pachuco". The people of Pachuco developed their own way of talking. They borrowed from different sources. They took Spanish and Nahuatl from Mexico; from the US, English and, astonishing as it seems, the Spanish Gypsy dialect Caló. The latter's influence was so big that the Pachucos call their own language, too, Caló. By 1940 it was very widespread and everyone of Mexican origin spoke it.

Young people having great skill at coming up with new words, it's a way of speaking which changes all the time. Here's a short dictionary.

**aliviense:** lighten up, cool it / bizkor

**bolillo:** anglo, "white boy" / zuritxo

**borlotear:** to dance / dantza

**bote:** jail / kartzela

**cabuliar:** to make fun of / trufa egin

**calcos:** shoes / zapatak

**calmantes montes:** chill out / lasai

**calmenla:** calm down, cool it / lasai

**carnala:** sister / arreba, ahizpa

**carnal:** brother, close friend / anaia, lagun mina

**chafa:** embarrassed, low quality, worthless / balio gutxikoa

**¡chale!:** no, no way / ezta pentsatu ere

**chicas patas:** little one, a young girl-woman / txikia, neska gaztea

**chingón:** macho, big shot, bad dude / matxoa, ona, gaiztoa

**contróláte:** control yourself / kontrolatu zure burua

**descuéntate:** beat it, get lost / galdu zaitez

**drapes:** pants / galtzak

**huisa:** woman, girlfriend / neska, neska laguna

**jefita/jefito:** mother, father (literal: boss) / ama, aita, jefea

**la jura:** the law, police / legea, polizia

**me la rayo:** for sure, it's the truth, I swear / zin dagit

**¡nel!:** no! (more forceful than ¡chale!) / ez indartsua

**¡orale!:** hey, right on / goazen, mugi

**pedo:** hassle, excitement / kitzikagarria

**pendejadas:** stupidity or mean act / ergelkeria, gaiztakeria

**pendejo:** schmuck, idiot / ergela

**pinché:** lousy /

**ponte abusado:** wise up, get smart / espabilatu

**que desmadre:** what a mess / desmadrea

**que pues, nuez?:** what's going on? / zer gertatzen da?

**rifa:** rules / arauak

**ruca:** wife, chick, girlfriend / emaztea, neska, neska laguna

**simón:** yes / bai

**suave:** fine, o.k. / ados

**tacuche:** suit, zoot suit, fancy clothing / elegante

**tando:** hat / sombreroa

**¿te curas?:** can you believe it? / sinetsi al dezakezu

**trapos:** clothes / jantziak

**trucha:** alert, watch out / kontuz, kasu

**vato:** dude, guy / tipoa

**verdolaga:** naïve, hick / simplea

**¡watcha!:** look! / kasu

**ya estubo:** cut it, that's enough / aski da

**ya pues:** that's enough / aski da

**aguas!:** "be careful," or "danger" when its shouted out / kontuz, arriskua, oihukatua denean



## estrainoa

- 1 - Aurretik ezagutzen ez dena; familiakoa ez dena.
- 2 - Norberaren lokazio edo ingurunekoa ez dena.  
Natiboa ez dena.
- 3 - arrunta ez dena, berezia.
- 4 - Ohitura eta keinuetan erreserbatua.  
Distantzia jarzten duena.
- 5 - Erosoa edo erraza ez dena
- 6 - Ohitura edo moldaerarik ez duena.



## strange

- 1 - Not previously known; unfamiliar.
- 2 - Not of one's own or from a particular locality, environment, or kind; not native.
- 3 - Out of the ordinary or difficult to account for; unusual or peculiar.
- 4 - Reserved in manner; distant or cool.
- 5 - Not comfortable or at ease.
- 6 - Not accustomed or conditioned.

Zine, musika eta oro har kultura estrainioaren zale batzuk bildu eta L'Étrange jaialdiari ekin ziotenean, bide komertzial nagusietatik kanpo geratzen ziren proposamenei espazio bat eman nahi izan zieten. Orain, errazagoa zaigu Koreatik datorren zinema madarikatua, proposamen digital muturrekoak edo eta musika esperimental ezberdinen berri izatea. Duela 20 urte ordea L'Étrange bezalako jaialdi urrietan soilik topatzen genituen, mugak eta tabuak hausten zituzten proposamenak.

Aurtengo edizioak ere Pandoraren kutxa irekiko du beste behin. Zine estrainioaren unibertsoa izar ezagunez gain, etorkizunean zer esana emango duten zine zuzendariak deskubritzen eta sortzaile ezberdinei *carte blanche* ematen zaie: aurten Benoît Delepine, Guy Maddin eta Ben Wheatley. Bestetik, 2012an Kenneth Anger, 2013an Jello Biafra eta 2014an The Pere Ubu Film Group gonbidatu gisa izan ostean, aurten The Residents mitikoei lur hartuko dute jaialdian emanaldi berezi batekin. Simpsons-en sortzailea den Matt Groening-ek "20. mendeko musika popularreko talderik eraginkorrena" gisa definitu zituen. *Shadowland* emankizun berezia antolatu du, beren *Randy, Chuck and Bob* trilogiako azken atala, bereziki jaialdirako prestatutako emanaldian. Aurten, irailaren 3tik 13ra ospatuko da L'Étrange Festival Parisko Forum des Images-en. Parisek merezi du meza (sataniko) bat.



They got together some strange cinema, music and culture fans in general and set up *L'Étrange* festival with the aim of providing a space for things which don't fit into the main commercial offer. Nowadays it's easier for us to see underground films from Korea, get hold of extreme digital offerings and hear about different types of experimental music. But 20 years ago there were very few festivals such as *L'Étrange*, things which went beyond frontiers and taboos.

This year's festival is going to open Pandora's Box up once more. As well as well-known strange cinema stars, it introduces directors who are going to be talked about in the future and offers different creators *carte blanche*: This edition Benoît Delepine, Guy Maddin and Ben Wheatley. After having Kenneth Anger as its special guest in 2012, Jello Biafra in 2013 and The Pere Ubu Film Group in 2014, this year The Residents are going to land on earth to give a special performance. Matt Groening, the creator of *The Simpsons*, once described them as "The most influential group in 20th century popular music". They've put together a special show for the festival, *Shadowland*, with the latest parts of their *Randy, Chuck and Bob* trilogy.

This year L'Étrange Festival is going to be held at Paris' Forum des Images from 3rd to 13th September. Paris is worth a (satanic) mass.

## tolestura berri bat

**Zeru tolesgarriak diskoan, konposizio, konponketa eta instrumentazio artisau-lana egin du Iker Laurobak. Konplexurik gabe, emozioei zuzenduriko pop kantu melodiko eta lasaia bildu ditu. Ez ezazue espero merengerik, ordea. Grabaketa-lan itzelak eta Harkaitz Canoren hitzek tolesduraz betetzen baitute Iker Laurobaren musika zerua.**

Zure ibilbidea rockari lotuta irudikatzen dugu beti. Nondik sortu zaizu kantuei ukitu beri hau ematea? Instrumentazio anitza, konponketa lan handia...

Betidunik konposatu izan ditut estilo honetako abestiak, halere, Harkaitz Canorekin topo egin arte, ez zitzaidan burutik pasa halako disko bat egitea. Erraztasun handiagoa dut musika egiteko idazteko baino, horregatik hura izan da behar nuen bidelaguna. Esan beharra dut Fredi Pelaezek ere asko lagundu didala proiektu hau aurrera ateratzen. Grabazioa haren estudioan egin dugu, ekoizpena haren esku egon da, diskoan parte hartu duten musikari asko haren bidez ezagutu ditut... Diskoa bie esker kaleratu dut, parte handi batean.

Hitzek ere garrantzi handia izan al dute lan honetan? Kontaiguzu nolakoa izan den H. Canorekin elkarlana...

Harkaitzek letra pare bat egin zizkigun Laurobaren azken diskorako. Behin grabazioa amaituta, proiektu hau aurrera eramatea proposatu nion. Abestiak buruan nituen, baina egituratu gabe, eta, hilabeteko epean guztiei forma eman, eta Harkaitzek letrak eginda itzuli zizkidan. Izugarria izan da nola egokitu zituen hitzak nik bidalitako melodietara; abesti bakoitzaren arima ezin hobeki interpretatu zituen.

Ba al duzu lan hau zuzenera eramateko asmorik? Zer formatutan?

Ez dut oso argi oraindik; disko hau kapritxo moduko bat izan da. 23 musikaririk hartu dugu parte, eta oso zaila izango zen disko hau bere horretan zuzenera eramatea. Gainera, musikaren panorama dagoen bezala egonda, ez dut uste formatu handi batean zuzenekoak emateko aukerak izango nituzkenik, beraz, orain arte bezala jarraituko dut, oraingoz. Iñigo Asensio (pianoa, akordeoia), Jokin Garmendia (txeloa), Sara Azurza (ahotsa) eta Leire Berasaluze (ahotsa) dira nire banda egonkorra.

**Kantu askotan emakumeen ahotsak dituzu lagun, eta nortasun berezia ematen die kantuei bi ahotsekin egiten duzun jokoa... Hasieratik izan zenuen argi aukera hori?**

Sara Azurza, Leire Berasaluze eta Fariba Sheikhan abeslariak hartu dute parte grabaketan. Diskoa orain kaleratu den arren, badaramat bolada bat abesti hauek zuzenean jotzen, eta hirurek lagundu didate beren ahotsekin ibilaldi horren hainbat momentutan. Diskoan denak egotea nahi nuen, hiru ahots zoragarri iruditzen baitzaizkit.

**Musikaz bizitzea zaila da, baina musika bizitzea, zure kasuan, behintzat, ez dago zalantzarik hala dela... Nola moldatzen zara hainbeste proiektuekin?**

Ez da erraza, batez ere etekin ekonomikorik jasotzen ez duzunean apenas, eta beste lan bat eduki behar duzunean bizitza aurrera ateratzeko. Hala ere zorte handia dudala sentitzen dut, musika bikaina egiten duten banden parte naizela sentitzen dudalako: Charlie & The Colours, Indigo, Lauroba, Tristan Crowley...

## another bend

**Iker Lauroba has written, arranged and played the instruments on Zeru tolesgarriak. Without worrying about what anybody else might think, he's made quiet, melodic pop. But don't expect pastel colours. Amazing recording work and Harkaitz Cano's words put together Iker Lauroba's musical heaven.**

You've always been associated with rock. How did you come to give your songs this new touch? Lots of different instruments...

A lot of work on the arrangements...

I've always written songs like this, but I'd never thought to making a record like this until I met Harkaitz Cano. I find it much easier to write music than lyrics, so he's come along on this journey with me. I also have to say that Fredi Pelaez has helped me a lot. The recording took place in his studio, he did the production work, I've met a lot of musicians who've taken part in the record. I've brought the record out thanks to those two, to a large extent.

**Are they lyrics important in this work? Tell us what it was like working with H. Cano...**

Harkaitz wrote a couple of lyrics for your last disk. After finishing recording that, I suggested we could work together on this project. I had the songs in my head, but they hadn't been structured; I spent a month putting them into shape and then Harkaitz sent me the lyrics back. It's incredible how he fitted his lyrics to my tunes, he's understood the soul of each song.

Are you planning to play this live? In what format?

I'm not sure yet, this record's something very special. 23 musicians have taken part in the recording and it'll be very hard to take it onto the stage. What's more, seeing the state music's in, I don't think I'll have the chance to give large-format concerts, so I'll carry on as I have until now. Iñigo Asensio (piano, accordion), Jokin Garmendia (cello), Sara Azurza (voice) and Leire Berasaluze (voice): that's my permanent band.


**On many songs you're accompanied by different women's voices, and they give the songs a special personality. Is that something you wanted to do from the start?**

The singers Sara Azurza, Leire Berasaluze and Fariba Sheikhan took part in the recordings. Although the record's only just come out, I've been playing the songs live for some time now, and all three of them have accompanied me with their voices on different occasions. I wanted them to be on the record, I think their voices are amazing.

**It's difficult to make a living from music, but there's no questioning the fact that you live for music... How do you manage to keep involved in so many projects?**

It isn't easy, especially as there's hardly any money in it and you have to have another job to be able to make a living. But, even so, I think I'm very lucky. I feel I'm part of groups which make great music: Charlie & The Colours, Indigo, Lauroba, Tristan Crowley...





Betiko arropa iluna alboratu, eta kolorez jantzi ditu bere abesti berriak Jamie XX-ek. Hainbat urtetako sormen lanaren emaitza da diskoa, eta egunerokoan eragiten dioten soinua bildu ditu (tartean hainbat telesailtako elkarrizketak). Hainbat bidaia lagun izan ditu kantuak osatzeko, tartean, The XX-eko taldekide den Romy-ren laguntza ere izan du *Loud places* bikainean.

Jamie XX has shed his habitual dark clothing and donned colourful new clothes for these songs. The album is the result of several years' work and he makes room for everyday things on the record (snippets of dialogues from TV shows is an example of this). There are plenty of collaborators featured, his band mate Romy from The XX on the excellent *Loud places* being one worthy of mention.



**Jamie XX**  
*In colour*  
XL Recordings / Young Turks




**Tame Impala**  
*Currents*  
Interscope

Kevin Parkerrek gidatzen duen taldeak gailurra jo du *Currents* disko berriarekin. Inoiz baino gitarra gutxiago erakusten duen lan honetan, Parkerren heldutasun musikala nabarmentzen da, eta autore kutsua darie abestiei. Disko perfektuaren bila aritu da, eta lortu duelako susmoa dugu. Psikodelia maite baduzu, bidaia paregabea aurkituko duzu hemen.


The band led by Kevin Parker has really come up with the goods on their new record *Currents*. There is less guitar than ever and Parker's musical maturity, particularly when it comes to song-writing, shines through on the songs. If you like psychedelia, you really are in for a treat on this one.

Bost urte pasa dira Peruko Kanaku y El Tigre-k *Caracoles* diskoa argitaratu zuenetik. Folk, pop, tradizioa eta psikodelia nahasten dira lan berri honetan. Nicolás Saba-k eta Bruno Bellatín-ek gidatzen duten taldeak izen handiko kolaborazioak izan baditu ere (Leonor Watling, Pamela Rodriguez) bere kabuz defendatzen diren abestiak osatu dituzte. Liniers argentinarrek sortu du diskoaren azala.

It's been five years since Peruvian band Kanaku y El Tigre released their album *Caracoles*. This new record is a mixture of folk, pop, traditional music and psychedelia. Nicolás Saba and Bruno Bellatín's band have some heavy-hitting collaborators on show (Leonor Watling, Pamela Rodriguez) on these solid tunes. The Argentinean Liniers designed the cover.



**Kanaku y el tigre**  
*Quema, quema, quema*  
Strut



**Leon Bridges**  
*Coming Home*  
Columbia Records

Soul eta Gospel erritmoak maisuki abesten dituen musikari gaztea da Leon Bridges. Askorentzat Sam Cooke lekua hartzera dator. Lehen disko honetan, soul dotorea eta R&B bizia batzen dituzten kantuak aurkituko dituzu. Maitasun baladek eta gerria mugiaraziko dituzten kantuek ere badute lekua...; azken horietakoa da *Smooth Sailing*. Soulairen izar berri baten sorreraren aurrean gaudela dirudi.


Leon Bridges is a young musician who is a masterful singer of soul and gospel. Many believe he is here to step up and fill the legendary shoes of Sam Cooke. This debut album is a mixture of elegant soul and fast R&B. Both love ballads and hip-moving dance tunes have their place here. *Smooth Sailing* is an example of the latter. We are probably witnessing the birth of a major new soul star.

Kunbia eta elektronika nahasteko duen joerak eraman du Bomba Estereo gaur egun dagoen postu gorenera. Atzean gelditu dira *Fuego* bezalako abestietan proposatzen zizkiguten doinu mestizoak, eta elektronikak pisua hartu du Liliana Saumet abeslariak gidatzen duen taldean. *Que bonito* single-ak aurreratu zuen aldaketa hori, eta, orain, *Fiesta* eta horren gisako kantuetan entzun daiteke. Ba, hori: hitz gutxiago eta festa gehiago!

Bomba Estereo's mixture of cumbia and electronica have led them to the dizzy heights they occupy today. They have left behind the mestizo melodies on the likes of *Fuego* and electronica has taken on a larger presence in singer Liliana Saumet's band. The single *Que bonito* signalled this change and it continues on songs such as *Fiesta*. So, that's it really: less talk, more party!



**Bomba Stereo**  
*Amanecer*  
Sony



**Nozinja**  
*Nozinja Lodge*  
Warp

Hego Afrikako Shangaan etniatik datorren musikaria da Nozinja. Tailer batean mugikorrek konpontzen hasi zen, eta han pilatzen zituen aparailu elektronikoekin Shangaan Electro estiloan nahasten diren soinua sortzeari ekin zion: elektronika eta doinu tradizionalak. Warp diskoetxeak sinatu du, eta bere estudioko lehendabiziko diskoa dakar orain: alaia, koloretsua eta bizia. Dantzarako erritmo ero hauek ez dizute etenaldirik eskainiko.

Musician Nozinja hails from the Shangaan ethnic group in South Africa. He started working in a mobile phone repair shop and that's where he started creating the mix of electronic and local traditional music that make up the Shangaan Electro style. He was signed by record label Warp and he's here with his first release. It's happy, colourful and very much alive. There will be no rest for the wicked with these crazy dance rhythms.



no comment  
doneztebe  
argazkia / photo by: xabier sagardia

# 02

garage voyage



GET  
XPO  
PHO



## ibai jolasak... river games...

Hondartza bihurtu dugu opor garaien tenplu, baina ez gara beti aberatsak izan;  
-Chirringuito- Andeetako herri baten izena zela uste genuen garaia ez dago hain  
urrun.  
Uhertza izateko ura besterik ez da behar; ibaira salto egiteko, harkaitzak,  
zuhaitzetara lotutako sokak eta zubiak besterik ez dira behar.  
Haur izateari utzi nahi genionean, ibaien meandroetan hazitako belar luzeetan  
ezkutatzen ginen.  
Lehen musuaren ibaiak korronteari eskainitako gorputzen jolasak; uraren ispliluak  
ezkutatu, elkar laztantzen ikasi genuen.  
Ibaietan gertaturiko istorio guztiak itsasoratu egiten dira; itsasorik ez dutenen  
itsasoa baita ibaiak.

We're turned beaches into holiday temples, but we haven't always been rich;  
until fairly recently we still thought "Chirringuito" was a town in the Andes.  
To get muddy all you need is water; to jump into a river, rocks, ropes tied to trees  
and bridges.  
When we wanted to stop being children we'd hide in the long grass in the  
meanders; first kisses, body games offered to the river flow. We learned to caress  
each other hidden by the water's reflection.  
Everything that happens on rivers ends up in the sea; rivers are the sea for those  
who don't have a sea.





arin igeri  
light swimm

kionita  
pina collection  
2015



modelo / *model*:  
